



EBAZPEN OSAGARRIA

GIPUZKOAKO BIDAIARIEN GARRAIOA

130-ZEH-2016 LEA/AVC espedientea

Laburpena:

I. EGITATEZKO AURREKARIAK	1
II. ZEHAPENAK ZEHAZTEA	7
1. Enpresei ezarritako zehapenak erabakitzeko irizpideak	8
A. Auzitegi Gorenak adierazitako irizpideak	9
B. Jokabidearen balorazio orokorra egiteko irizpideak	10
C. Jokabidearen banakakoa egiteko irizpideak	12
D. Proporzionaltasunaren azken egiaztapena.....	16
2. AVITRANSen zehapena ezartzeko irizpideak.....	17
III. EBAZTEN DU.....	19

Osoko bilkura:

Alba Urresola Clavero andrea, presidentea

Rafael Iturriaga Nieva jauna, kontseilukidea

Enara Venturini Álvarez, kontseilukidea

Maria Lourdes Muñoa Corral, idazkaria

1. Lehiaren Euskal Agintaritzaren (aurrerantzean, LEA/AVC) Lehiaren Euskal Kontseiluak (aurrerantzean, LEK) 2019ko maiatzaren 15eko bilkuran (adierazitakoek parte hartuta), ebazpen osagarri hau eman du 130-ZEH-2016 GIPUZKOAKO BIDAIARIEN GARRAIOA espedientean.

I. EGITATEZKO AURREKARIAK

2. LEKek 2017ko abenduaren 27ko bilkuran ebazpena eman zuen 130-ZEH-2016 GIPUZKOAKO BIDAIARIEN GARRAIOA espedientean. Hona hemen ebazpen horrek ezarritakoa:



LEK-k ebazten du AVITRANSeK eta ondoren zehaztutako enpresek arau-hauste bakar eta jarraitu bat, oso astuna, egin dutela, LDLren 1.1. artikuluan debekatutako honako jokabide hauek gauzatu dituztelako:

a) Tarifak finkatzea garraio erregular bereziko merkatuetan, haren modalitate ezberdinetan (lizitazio publikoak eta kolektibo pribatuak) eta/edo eskatu ahalako garraioan; eta/edo erabaki horiek gauzaten saiatzea, eraginkortasunez betetzeko sistema bat ezarriz, eta beharrezkotzat jo duenean, erabaki horiek betetzeari uko egin dioten enpresei boikota aplikatuz.

b) Merkatuak banatzea garraio erregular berezian, haren modalitate ezberdinetan (lizitazio publikoak eta kolektibo pribatuak) eta/edo eskatu ahalako garraioan; eta/edo erabaki horiek gauzaten saiatzea, eraginkortasunez betetzeko sistema bat ezarriz, eta beharrezkotzat jo duenean, erabaki horiek betetzeari uko egin dioten enpresei boikota aplikatuz.

- ALUSTIZA BIDAIK SL (ALUSTIZA) (IFK: B20425435)
 - ARTEONDO AUTOBUSAK SL (ARTEONDO) (IFK: B20548079)
 - AUTOBUSES GARAYAR SA (GARAYAR) (IFK: A20062345)
 - AUTOCARES AIZPURUA SL (AIZPURUA) (IFK: B20044442)
 - AUTOCARES DÍEZ SA (DÍEZ) (IFK: A20094611)
 - AUTOCARES HERMANOS ESCUDERO SL (ESCUADERO) (IFK: B20051074)
 - AUTOCARES IPARRAGUIRRE SL (IPARBUS) (IFK: B20078242)
 - AUTOBUSES URBANOS IRUN FUENTERRABIA SL (AUIF) (IFK: B20038949)
 - AUTOCARES URPA SL (URPA) (IFK: B20380127)
 - BENGOETXEA AUTOBUSAK SA (BENGOETXEA) (IFK: A20192340)
 - GOIERRI BUS SL (GOIERRIBUS) (IFK: B20342283)
 - GOIERRIALDEA SL (GOIERRIALDEA) (IFK: B20587325)
 - GURE BUS SAL (GUREBUS) (IFK: A20402681)
 - J. APAOLAZA AUTOBUSAK SL (APAOLAZA) (IFK: B20800884)
 - TOLOSALDEA BUS SL (TOLOSALDEABUS) (IFK: B20477071)
 - TRANSPORTES PESA SA (PESA) (IFK: A20026084)
 - UNITRAVEL AUTOCARES SL (UNITRAVEL) (IFK: B20388997)
- (...)

Honako zehapen hauek ezartzea:

GIPUZKOAKO BIDAIARIEN HIRIARTEKO GARRAIOKO ENPRESA-ELKARTEAri (AVITRANS) (IFK: G20058541), 20.000 euroko zehapena, elkarte horren barruan hartu direlako tarifak finkatzeko eta merkatuak banatzeko lehiaren aurkako erabakiak garraio erregular berezian (modalitate guztietan: lizitazio publikoak eta pribatua) eta eskatu ahalako garraioan, eta horrez gain, aipatutako erabakiak gauzaten saiatu direlako men egiten ez zieten enpresa jakin batzuen aurkako boikot-neurriak ezarriz eraginkortasunez betetzeko sistema baten bitartez, enpresa horiek AVITRANSeKO kide izan edo ez, 1988-2015 aldian.



- ALUSTIZA BIDAIAK SLri (IFK: B20425435), 23.902,85 euroko zehapena, erabilera bereziko garraio erregularrari buruzko erabakietan, eskolako garraio publiko eta kolektibo pribatuko modalitateetan, eta eskatu ahalako garraioari buruzkoetan, parte hartzeagatik 1989-2014 aldian.
- ARTEONDO AUTOBUSAK SLri (IFK: B20548079), 20.062,80 euroko zehapena, erabilera bereziko garraio erregularrari buruzko erabakietan, eskolako garraio publiko eta kolektibo pribatuko modalitateetan, eta eskatu ahalako garraioari buruzkoetan, parte hartzeagatik 1989-2014 aldian.
- AUTOBUSES GARAYAR SAri (IFK: A20062345), 47.940,27 euroko zehapena, erabilera bereziko garraio erregularrari buruzko erabakietan, eskolako garraio publikoko modalitateetan, parte hartzeagatik 1988-2015 aldian.
- AUTOCARES AIZPURUA SLri (IFK: B20044442), 127.332,55 euroko zehapena, erabilera bereziko garraio erregularrari buruzko erabakietan, eskolako garraio publiko, kolektibo pribatu eta lizitazio publikoetako modalitateetan, eta eskatu ahalako garraioari buruzkoetan, parte hartzeagatik 1988-2015 aldian.
- AUTOCARES DÍEZ SAri (IFK: A20094611), 44.941,56 euroko zehapena, erabilera bereziko garraio erregularrari buruzko erabakietan, eskolako garraio publiko eta lizitazio publikoetako modalitateetan, eta eskatu ahalako garraioari buruzkoetan, parte hartzeagatik 1988-2015 aldian.
- AUTOCARES HERMANOS ESCUDERO SLri (IFK: B20051074), 5.446,74 euroko zehapena, erabilera bereziko garraio erregularrari buruzko erabakietan, eskolako garraio publiko eta kolektibo pribatuko modalitateetan, eta eskatu ahalako garraioari buruzkoetan, parte hartzeagatik 1996-2015 aldian.
- AUTOCARES IPARRAGUIRRE SLri (IFK: B20078242), 49.281,51 euroko zehapena, erabilera bereziko garraio erregularrari buruzko erabakietan, eskolako garraio publiko eta kolektibo pribatuko modalitateetan, eta eskatu ahalako garraioari buruzkoetan, parte hartzeagatik 1988-2015 aldian.
- AUTOBUSES URBANOS IRUN FUENTERRABIA SLri (IFK: B20038949), 75.846,37 euroko zehapena, erabilera bereziko garraio erregularrari buruzko erabakietan, eskolako garraio publiko eta kolektibo pribatuko modalitateetan, eta eskatu ahalako garraioari buruzkoetan, parte hartzeagatik 1989-2015 aldian.
- AUTOCARES URPA SLri (IFK: B20380127), 9.572,99 euroko zehapena, erabilera bereziko garraio erregularrari buruzko erabakietan, eskolako garraio publiko eta kolektibo pribatuko modalitateetan, eta eskatu ahalako garraioari buruzkoetan, parte hartzeagatik 1993-2014 aldian.
- BENGOTXEA AUTOBUSAK SAri (IFK: A20192340), 19.396,93 euroko zehapena, erabilera bereziko garraio erregularrari buruzko erabakietan, eskolako garraio publiko eta kolektibo pribatuko modalitateetan, eta eskatu ahalako garraioari buruzkoetan, parte hartzeagatik 1988-2014 aldian.
- GOIERRI BUS SLri (IFK: B20342283), 41.435,77 euroko zehapena, erabilera bereziko garraio erregularrari buruzko erabakietan, eskolako garraio publiko eta kolektibo pribatuko modalitateetan, eta eskatu ahalako garraioari buruzkoetan, parte hartzeagatik 2005-2014 aldian.
- GOIERRIALDEA SLri (IFK: B20587325), 53.394,95 euroko zehapena, erabilera bereziko garraio erregularrari buruzko erabakietan, eskolako garraio publiko eta kolektibo pribatuko



modalitateetan, eta eskatu ahalako garraioari buruzkoetan, parte hartzeagatik 2000-2014 aldian.

- GURE BUS SALri (IFK: A20402681), 20.472,54 euroko zehapena, erabilera bereziko garraio erregularrari buruzko erabakietan, kolektibo pribatuko modalitatean, eta eskatu ahalako garraioari buruzkoetan, parte hartzeagatik 2002-2014 aldian.

- J. APAOLAZA AUTOBUSAK SLri (IFK: B20800884), 14.469,24 euroko zehapena, erabilera bereziko garraio erregularrari buruzko erabakietan, eskolako garraio publiko eta kolektibo pribatuko modalitateetan, eta eskatu ahalako garraioari buruzkoetan, parte hartzeagatik 2005-2014 aldian.

- TOLOSALDEA BUS SLri (IFK: B20477071), 77.071,59 euroko zehapena, erabilera bereziko garraio erregularrari buruzko erabakietan, eskolako garraio publiko eta kolektibo pribatuko modalitateetan, eta eskatu ahalako garraioari buruzkoetan, parte hartzeagatik 1994-2015 aldian.

- TRANSPORTES PESA SAri (IFK: A20026084), 277.800 euroko zehapena, erabilera bereziko garraio erregularrari buruzko erabakietan, kolektibo pribatuko modalitatean, parte hartzeagatik 1989-2015 aldian.

- UNITRAVEL AUTOCARES SLri (IFK: B20388997), 3.125,79 euroko zehapena, erabilera bereziko garraio erregularrari buruzko erabakietan, eskolako garraio publiko eta kolektibo pribatuko modalitateetan, eta eskatu ahalako garraioari buruzkoetan, parte hartzeagatik 1996-2014 aldian.

3. Jarraian zehazten diren elkarteek eta enpresek administrazioarekiko auzi-errekurtsua aurkeztu zuten Euskal Autonomia Erkidegoko Justizia Auzitegi Nagusiaren (EAEJAN) aurrean LEKek 2017ko 27an emandako ebazpenaren aurka:

– GIPUZKOAKO BIDAIARIEN HIRIARTEKO GARRAIOKO ENPRESA-ELKARTEA (AVITRANS)

- ALUSTIZA BIDAIK SL

- ARTEONDO AUTOBUSAK SL

- AUTOBUSES GARAYAR SA

- AUTOCARES AIZPURUA SL

- AUTOCARES DÍEZ SA

- AUTOCARES IPARRAGUIRRE SL

- AUTOBUSES URBANOS IRUN FUENTERRABIA SL

- AUTOCARES URPA SL

- BENGOETXEA AUTOBUSAK SA

- GOIERRI BUS SL

- GOIERRIALDEA SL

- GURE BUS SAL

- TOLOSALDEA BUS SL

- TRANSPORTES PESA SA



- UNITRAVEL AUTOCARES SL

4. EAEJANen ebazpenak ezetsi egin zituen jarraian zehazten diren enpresek aurkeztutako administrazioarekiko auzi-errekurtsoak:

- ALUSTIZA BIDAIK SL (2019ko martxoaren 8ko 69/2019 Epaia)
- AUTOCARES IPARRAGUIRRE SL (2019ko martxoaren 7ko 67/2019 Epaia)
- BENGOTXEA AUTOBUSAK SL (2019ko martxoaren 14ko 74/2019 Epaia)
- GOIERRIALDEA SL (2019ko otsailaren 22ko 52/2019 Epaia)
- TOLOSALDEA BUS SL (2019ko martxoaren 7ko 67/2019 Epaia)

5. GOIHERRIBUS SL enpresaren kasuan, EAEJANek partzialki onetsi zuen LEKen ebazpenaren aurka aurkeztutako administrazioarekiko auzi-errekurtsoa, 2019ko apirilaren 8ko 96/2019 Epaiaren bitartez. Hala, 7.534 euroko zehapena mantendu eta zenbateko horretatik gorako isuna baliogabetu zuen.

6. Jarraian datozen erakundeen kasuan, EAEJANek partzialki onetsi zituen aurkeztutako administrazioarekiko auzi-errekurtsoak zehapenak behar beste justifikatuta ez daudela argudiatuta, eta, horrenbestez, baliogabetu egin zituen LEKen ebazpeneko zehapenen zenbatekoak:

- ARTEONDO AUTOBUSAK SL (2019ko otsailaren 21eko 50/2019 Epaia)
- AUTOBUSES GARAYAR SA (2019ko otsailaren 21eko 49/2019 Epaia, 2019ko martxoaren 5eko autoaren bitartez zuzendua)
- AUTOBUSES URBANOS IRUN FUENTERRABIA SA (2019ko otsailaren 22ko 51/2019 Epaia, 2019ko martxoaren 7ko autoaren bitartez zuzendua)
- AUTOCARES AIZPURUA SL (2019ko martxoaren 21eko 80/2019 Epaia)
- AUTOCARES URPA SL (2019ko apirilaren 10eko 101/2019 Epaia)
- GURE BUS SAL (2019ko martxoaren 7ko 68/2019 Epaia)
- UNITRAVEL AUTOCARES AIZPURUA SL (2019ko martxoaren 21eko 79/2019 Epaia)

Puntu honetan aipatutako epai guztietan EAEJANek uste du zehapenak ez daudela behar beste justifikatuta LEKen 2017ko abenduaren 27ko Ebazpenean, eta honako hau adierazten du bertan:

Arestian aipatutakoak berekin dakar ebazpenak urratu egiten dituela justifikazio-estandarrak, eta, beraz, baita errekurtsoa partzialki onetsi beharra ere. Gauza horrela, administrazio demandatuak –kasu horietarako jurisprudentziak sistematikoki hartzen duen ereduari jarraikiz– berriz ere kuantifikatu beharko du zehapena, parametro horiek eta aplikagarria den legeria aplikatuz. Hori bai, kuantifikazio berritik eratorritako zenbatekoa edozein dela ere, errespetatu egin beharko da hasiera batean ezarritako gehieneko muga, gaur egun urriaren 1eko Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkideari buruzko Legearen (aurrerantzean APAPE 39/2015) 119.3. artikulua jasotzen duen «*non reformatio in peius*» printzipioaren arabera.



Justifikazio-gabezia horrek eragina du isunaren zehaztapen proportzionalaren gainean, eta beraz, errekurtsua partzialki onetsi beharra eragin du akats horrek, LDLren 63. eta 64. artikuluek ezarritako arau-irizpideak beteko dituen kuantifikazio xehatu berri bat egin dadin.

7. Halaber, TRANSPORTES PESA SA enpresak LEKen ebazpenaren aurka jarritako errekurtsuari buruzko EAEJANen 2019ko martxoaren 6ko 64/2019 Ebazpenak ezartzen du enpresari horri ezarritako zehapena ez dagoela behar beste justifikatuta. Honakoa dio, zehazki:

HAMARGARRENA.- Aurreko oinarrian aurkeztutakoari jarraikiz, LEA/AVCk errekurtsogileari ezarri behar dion zehapenaren (isunaren) graduazio justifikatua 2006ko negozio-bolumen osoaren %10eko mugaren barruan (14.908.329,12 €) eta ezarritako zehapenaren zenbatekoaren azpitik (277.800 €) egon beharko da, eta, horrez gain, LDLren 64.1. artikuluan ezarritako irizpideak eta, zehazki, honako irizpide hauek bete beharko ditu:

- a) Arau-haustearen iraupena: 26 urte.
- b) Errekurtsogileak arau-haustek eragindako merkatuan duen partaidetza-kuota.
- c) Inguruabar aringarri edo larrigarririk ez izatea.

8. Azkenik, AVITRANS elkarteak LEKen Ebazpenaren aurka aurkeztutako errekurtsuari buruzko EAEJANen otsailaren 28ko 58/2019 Ebazpenak partzialki onetsi zuen errekurtsua, zehapena behar beste justifikatuta ez dagoela argudiatuta. Hala, balio gabetu egin zuen aipatutako ebazpena zehapenaren zenbatekoari dagokionez. Honakoa adierazi zuen EAEJANek:

Arestian aipatutakoa aurkeztuta, aurkaratutako ebazpena irakurtzea nahikoa da zehapen-erabakiaren justifikazio-faltaz ohartzeko; izan ere, ez da zehazten zein izan den ezarritako isuna kalkulatzeko oinarria, eta ez dira isuna ezartzeko legez aplikatu daitezkeen irizpide eta faktoreak banaka haztatu, eta haien arabera graduatu behar dira zehapenak 16/1989 Legearen 10.2 artikulua ezarritakoari jarraikiz. Horrenbestez, ez da era egokian justifikatu ezarritako isunaren zenbatekoa, eta, hori horrela, justifikazio-betebeharra urratu da; horregatik, gai honi dagokion errekurtsua partzialki onetsi behar da, eta demandatutako administrazioak berriz kuantifikatu beharko du zehapena, betiere kalkulu-oinarria zein den adieraziz eta 16/1989 Legeak ezarritako aurreikuspenen barruan, AVITRANS elkarteari ezarritako isuna kalkulatzeko aintzat hartu dituen inguruabarrak mugatuz eta esplizitatuz. Horrez gain, hasieran ezarritako gehiengoa errespetatu beharko da, urriaren 1eko 39/2015 Legearen 119.3 artikulua ezartzen duen «*non reformatio in peius*» printzipioa betez.

9. Horrenbestez, EAEJANen aipatutako epaiek ezarritakoa betetze aldera, jarraian datozen ataletan honako elkarteei eta enpresei ezarritako zehapenen kuantifikazioa justifikatuko dugu:

- GIPUZKOAKO BIDAIARIEN HIRIARTEKO GARRAIOKO ENPRESA-ELKARTEA (AVITRANS)
- ARTEONDO AUTOBUSAK SL
- AUTOBUSES GARAYAR SA



- AUTOBUSES URBANOS IRUN FUENTERRABIA SL
- AUTOCARES AIZPURUA SL
- AUTOCARES URPA SL
- GURE BUS SAL
- TRANSPORTES PESA SA
- UNITRAVEL AUTOCARES SL

10. Oraindik EAEJANek emateke dago AUTOCARES DIEZ SAK LEKEn ebazpenaren aurka aurkeztutako errekurtsolari dagokion epaia.

II. ZEHAPENAK ZEHAZTEA

11. EAEJANen epaiek, Gipuzkoako garraio-kartela osatzen duten enpresek aurkeztutako errekurtsioak ebatzi dituztenak, argi eta garbi konfirmatzen dute Lehiaren Defentsarako uztailaren 3ko 15/2007 Legearen (aurrerantzean LDL) 1. artikuluaen aurkako arau-hauste oso astun bakar eta jarraitua dagoela. Hala, 50/2019 epaiak dio:

«2. Lege honetan xedatutakoetarako, honako hau izango da kartela: bi lehiakide edo gehiagoren arteko isilpeko edozein akordio, horien helburua ondorengoetako bat bada, alegia, prezioak, ekoizpen-kuotak edo salmenta-kuotak finkatzea, merkatuak elkarren artean banatzea (tartean direla iruzurrezko enkanteak), edo inportazio edo esportazioak murriztea» (azpimarra eta letra lodia guk jarri ditugu).

Gauzak horrela, karakterizazio hori osorik eta halabeharrez erabil daiteke Avitransen barne-jarduera kalifikatzeko orduan, inongo zalantzarik gabe egiaztatu baita, ikerketa-espeditetako jarduketa ugaritan jasotako froga-bitarteko zuzenen eta dokumentuen bitartez. Ondorioz, ez da beharrezkoa zantzurik, ondorioz, inferentzia edo susmorik egoera hori egiaztatutzat emateko. Alderdi errekurtsogileak, gainera, ez du zalantzan jartzen elkartearen hainbat organok egindako aktek osatutako dokumentu multzo horren errealtasun eta egiazkotasuna – elkartek berak aurkeztu eta aitortu ditu–, eta, beraz, auzi-jartzailearen tesiaren kontrako zentzuan ebatzi behar da epaia. Izan ere, elkartekideen aldeko ekonomia-, lan- edo administrazio-arloko informazioaren inguruko jarraibide sinplea falta da jarduketa eta dokumentuetan jasotako erabaki horietan. Ostera, agerian dago gidalerroa zerbitzuen prezio zehatzak ezartzea eta elkartekideei nolabaiteko babes edo erreserba eskaintzea zela, haiek lehenago lortu edo eman dituzten zerbitzuetarako (banaketa), eta hori zela kartelaren akordioen xede tipiko eta paradigmaticoa.

Gainerako epaiek ere antzeko adierazpenak darabiltzate.

Halaber, 50/2019 Epaia honako hau aipatzen du AVITRANSen barruan Gipuzkoako garraio-enpresen kartelaren partaidetzari buruz:

Gainerakoari dagokionez, edonola ere merkataritza-sozietate auzigilearen banakako erantzukizunaren karga arintzea denez helburua, errepikatu egin beharko litzateke baterako planaren presentziaren inguruan gorago EBJAren jurisprudentiaren bidez adierazitakoa; izan ere, kasu honetan agerikoa da plana egon badagoela, eta elkartearen kide 25 urtez izan



ondoren eta bilera askotan parte hartzeagatik –izan elkartearen zuzendaritzako edo garrantzi bereziko kide– itun horien irismenaren eta ondorioen jakitun ziren edo izan zitezkeen kideen jarduketa guztiak barnean hartzen dituela, zuzenean legokiokeen norberaren jarduketaren erantzule izan gabe.

12. Horrenbestez, ez dagoenez zalantzarik arauak urratu dituzten elkarteari eta enpresei disuasio-zehapen proportzionatu bat ezartzeko bidezkotasunari buruz, hurrengo atalean xehe-xehe justifikatuko da LEK honen iritziz erakunde horiei ezarri beharreko isunak.

13. EAEJANek berriz zehaztea eta justifikatzea eskatu dituen isunak, LEKek 2017ko abenduaren 27ko Ebazpenean adierazi zituenak, Auzitegi Gorenak 2015eko urtarrilaren 29ko Epaian xedatutako eta LDLren 63. eta 64. artikuluetan adierazitako irizpideei jarraikiz kalkulatu ziren. Hau da, EAEJANek ebazpen honetan 6., 7. eta 8. puntuetan adierazitako irizpide berak erabili ziren isunen zenbatekoaren kalkulua egiteko.

Alabaina, EAEJANren arabera, Ebazpenak ematen dituen azalpenekin ezin ondoriozta daiteke zehatutako enpresei ezarritako isunak koherenteak eta proportzionalak direla. Horrenbestez, aintzat hartuta EAEJANen epaiek aipatzen dituzten irizpide arautzaileak LEKen ebazpenean aplikatutako irizpide berak direla, xehetasun handiagoz azalduko dugu zein den zehapena ezartzeko erabilitako metodoa.

1. Enpresei ezarritako zehapenak erabakitzeke irizpideak

14. LDLren 63. eta 64. artikuluen arabera, ezarri beharreko zehapena ez da eragiketa aritmetiko baten emaitza, baizik eta izaera zenbatetsiko balio-judizio bat, legeak araututako mugen barruan ebazten dena. Beste era batera esanda, zehapenaren larritasunaren arabera eta 64. artikuluan ezarritako irizpideen arabera, gehienez ezar daitekeen zehapenaren %a hartzen da kontuan. Dena den, aintzat hartu behar da irizpide horiek ez daudela aritmetikoki definituta, eta administrazioak era justifikatuan haztatu behar duela zehapenaren behin betiko ezarpena.

15. Kasu honetan erabilitako metodologia Merkatuen eta Lehiaren Batzorde Nazionalak Lehiaren Defentsaren 15/2007 Legearen (uztailaren 3koa) 1., 2. eta 3. artikuluen eta Europar Batasunaren Funtzionamenduari buruzko Tratatuaren 101. eta 102. artikuluetan ezarritakoaren arau-hausteetatik eratorritako zehapenak ezartzeari buruzko behin-behineko argibideak aplikatzea izan da¹. Argibide horien xedeak dira

¹https://www.cnmc.es/sites/default/files/editor_contenidos/Competencia/Normativas_guias/Indicaciones%20provisionales%20de%20multas%20de%20competencia%20-%20CNMC.pdf



zehapenak ezartzerakoan gardentasuna eta objektibotasuna areagotzea, proportzionaltasuna eta disuasio-izaera bermatzea eta LDLren aplikazioan segurtasun-juridikoa handitzea.

Auzitegi Nazionalak emandako hainbat epaik konfirmatu dute zehapenak ezartzeko argibide horietan ezartzen den metodoa. Epai horiek jatorrizko ebazpen zehatzaileei nahiz MLBNri zehapena berriz ere kalkulatzeko agintzen dioten egikaritze-ebazpenei egiten diete erreferentzia².

16. Lehiaren araudia hausteagatik zehapenak ezartzeko metodoa bi fasetan banatzen da:

- Lehenik eta behin, **zehapen-tasa orokorra** ezartzen da, arau-haustearen ezaugarrien arabera. Zehapen-tasa deritzo erakunde arau-hausleak zehapena ezarri aurreko urtean egindako negozio-bolumenaren ehuneko bati. Kasu honetan, 2016ko negozio-bolumena hartu behar da aintzat. Zehapen-tasa hori zehapen-bitarte baten barruan dago, eta LDLren 63. artikuluan ezarritako mugak ditu goitik.
- Jarraian, **banakako zehapen-tasa** ezartzen da, enpresa bakoitzaren jokabide zehatzaren arabera.

17. Guztirako zehapen-tasa zehapen-tasa orokorra eta banakako zehapen-tasa batuz lortzen da. Eurotan ordaindu beharreko isuna guztirako zehapen-tasa enpresak 2016an izan zuen negozio-bolumen osoari aplikatuz kalkulatzeko da.

18. 2015eko urtarrilaren 29tik aurrera Auzitegi Gorenaren jurisprudentziak ezarritakoari jarraikiz, erakunde arau-hausle bakoitzari bere guztirako zehapen-tasa ezarri eta gero, azken egiaztapen bat egiten da eurotan ordaindu beharreko zehapena arau-haustearen tamaina errealekiko proportzionala dela bermatzeko.

A. Auzitegi Gorenak adierazitako irizpideak

19. Aipatutako EAEJANen ebazpenen arabera, zehapenaren ezarpenak bat etorri beharko du 2015eko urtarrilaren 29ko Auzitegi Gorenaren Epaiak adierazitako irizpideekin. Honako hauek dira, funtsean:

² Besteak beste, Auzitegi Nazionalaren 2018ko martxoaren 20ko eta apirilaren 6ko Epaiak (Administrazioarekiko Auzien Sala, Seigarren Atala), 374/2016 eta 363/2016 errekurtsioei dagokiena, S/DC/0504/14, AIO espedienteari buruzkoa; Auzitegi Nazional 2018ko ekainaren 14ko Epaiak (Administrazioarekiko Auzien Sala, Seigarren Atala), 395/2017 errekurtsioari dagokiona, S/0237/10, MOTOCICLETAS espedienteari buruzkoa; Auzitegi Nazionalaren 2018ko ekainaren 3ko Epaiak (Administrazioarekiko Auzien Sala, Seigarren Atala), 350/2017 errekurtsioari dagokiona, S/0037/08, COMPAÑÍAS SEGURO DECENAL espedienteari buruzkoa.



- ✓ LDLren 63.1 artikuluan aurreikusitako portzentajezko mugak zehapen-bitarte baten gehieneko mailatzat hartu behar dira, non zehapenak jokabideen astuntasunaren arabera bereizi behar diren. Muga horiek *«kasu bakoitzean diruzko zehapenaren gehieneko balioa ezarriko dute, eta gutxieneko balioan hasten den eskala batean, korrelazio-portzentajearen gehieneko maila izango dira»*. *«Dagokion kategoriaren barruan dentsitate juridikorik handiena duen jokabide arau-hausleari dagokion zehapen-gogortasunik handiena ezartzen duten zifra portzentualak dira. Hiru portzentaje horietako bakoitza, dagokion kategoriako arau-hausterik astunenari aplikatu dakiokkeen erantzun zehatzailearen gehieneko balioa diren aldetik, erreferentzia izan behar dira, horietatik hasi eta beheraka, gainerako arau-hausteei ezarri beharreko isuna kalkulatzeko»*.
- ✓ Isunaren ehunekoa zer oinarriren gainean kalkulatu behar den, berriz, (% 10 kasu honetan, arau-hauste oso astuna delako), *«isuna ezarri aurreko ekitaldian enpresa arau-hausleak izandako negozio-bolumen osoa»* aipatzen du LDLren 63.1 artikulua, eta kontzeptu horrekin legegileak, Auzitegi Gorenak adierazten duen moduan, *«azpimarratu nahi izan du ehuneko-oinarri gisa erabiltzen duen negozio-zifra ez dela zati batera mugatzen, bolumen haren "osotasunera" baizik»*.

20. Premisa horiek oinarritzat hartuta, ondorioztatu behar da ebazpena eman aurreko ekitaldian enpresa arau-hausleak izandako negozio-bolumen osoaren % 0 eta % 10 bitartekoa izan behar dela zehapena. Zehapen-tarte horren barruan, zehapena LDLren 64. artikuluan aurreikusitako graduazio-irizpideen arabera kalkulatu behar da.

B. Jokabidearen balorazio orokorra egiteko irizpideak

21. Aztertutako jokabidea arau-hauste bakar eta jarraitua da, zehazki, tarifak ezartzea eta Gipuzkoako bidaiarien garraio-zerbitzua banatzea, garraio erregular bereziko garraioen merkatuari (modalitate ezberdinetan: eskolakoa, lizitazio publikoak eta pribatua) eta eskatu ahalako garraioaren merkatuari dagokienez.

22. Beraz, arau-hauste oso astuna da (LDLren 62.4.a art.), eta isuna ezarri aurreko ekitaldian enpresa arau-hausleak egindako negozio-bolumenaren % 10era arteko isunarekin zehatu ahal izango da (63.1. art.). Kasu honetan, 2016ko ekitaldia hartu behar da aintzat.

Honakoa da aipatutako enpresek 2016an izan zuten fakturazioa:



ENPRESA	GUZTIRAKO NEGOZIO-BOLUMENA
	2016 (€)
AUTOCARES AIZPURUA SL	3.183.313,67
ARTEONDO AUTOBUSAK SL	818.889,71
AUTOBUSES URBANOS IRUN FUENTERRABIA SL	2.370.198,97
AUTOBUSES GARAYAR SA	3.394.382,82
GURE BUS SAL	682.417,99
TRANSPORTES PESA SA	14.908.329,12
UNITRAVEL SL	625.158,05
AUTOCARES URPA SL	638.199,00

23. Erakunde arau-hausle bakoitzaren guztirako negozio-bolumenari aplikatuko zaion ehuneko zehatzailea LDLren 64.1. artikulua ezarritako graduazio-irizpideak erabiliz kalkulatu beharko da, aurreko atalean aipatutako Auzitegi Gorenaren jurisprudentziaren irizpideei jarraikiz.

Espediente honetan inputatutako erakundeek adostasunez erabakitzen zuten zein tarifa ezarri, eta banatu egiten zituzten beren jarduneko merkatuetako garraio-zerbitzuak, zehazki, garraio erregular bereziaren eta eskatu ahalako garraioaren merkatuetakoak. Akordio horiek AVITRANS erakundearekin izandako bileretan egiten ziren; izan ere, erakunde horrek sistema horren babesle eta bermatzaile gisa jardun zuen epealdi osoan zehar.

Eragindako merkatuaren ezaugarriei dagokienez (64.1.a art.), LEK honek kontsideratu zuen, aurretik aipatu bezala, eragindako merkatua garraio erregular bereziarena (eskolako garraio publikoa, kolektibo pribatuetakoa eta lizitazio publikoak) eta eskatu ahalako garraioarena izan zirela. Enpresa horien jokabideak Gipuzkoako bidaiarien garraio-zerbitzuen merkatuaren % 40ri eragin dio (ez dira barne hartzen hiriko eta hiriarteko erabilera orokorreko sistemako garraio-zerbitzuak).

Espedientean jasotako datuen arabera, eragindako merkatuan badaude operatzen duten beste enpresa batzuk. Beraz, dagokion merkatuan enpresa arau-hausle guztien tarifak ezartzeko eta merkatua banatzeko jokabideak eragindako merkatu-kuota % 70 da. Edonola ere, bereziki aipatu behar da lizitazio publikoen bitartez esleitutako garraio-zerbitzuetan hartutako erabakien garrantzia; izan ere, eragindako merkatuaren % 26 hartzen dute, gutxi gorabehera (64.1.b art.).

Arau-haustek eragindako merkatu geografikoa Gipuzkoa da, eta, beraz, eragina mugatua da, EAEko lurralde bakarrari dagokiolako (64.1.c art.).

Jokabide horien iraupena 1988tik 2015era bitartekoa izan da. Iraupen hori enpresaren araberakoa ezberdina den arren, baieztatu daiteke jokabidea iraupen luzekoa izan dela (64.1.d art.).

Ebazpenaren 197. eta 204. puntuen artean azaldu bezalaxe, egiaztatuta geratu da merkatuan eragina izan duela jokabide horrek (64.1.e art.); zehazki, kalitatean eta prezioetan hobekuntzak egiteko pizgarri eza eragin du, eta, ondorioz, kalteak eragin dizkie garraio-erabiltzaileei. Ondore horietarako, garrantzi berezia dute erabilera



bereziko garraio erregularrean deitu ohi diren lehiaketan bitartez eginiko lizitazio publikoen bidez eskuratutako zerbitzuak (eskola-garraio publikoa, GFaren udalekuak, Osakidetzako langileak, UPV/EHUren Gipuzkoako campuseko zentro, zerbitzu eta sailetarako garraioa eta Euskadiko Orkestra). Eskola-garraio publikoaren kasuan, aipatutako eragin horiek aurreko lizitazioen emaitzak LEA/AVCk espediente zehatzaileari hasiera eman eta gero egindako lizitazioko emaitzekin alderatuz hauteman ziren, zehazki, 2017-2018 eta 2018-2019 ikasturteei dagokiena (SE/06/17) - 2. lotea Gipuzkoa.

24. Arestian aipatutako irizpideek arau-haustearen balorazio orokor bat egitea ahalbidetzen dute, eta, horiek aplikatuz, **zehapen-tasa orokorra % 2,75ekoa da.**

C. Jokabidearen banakakoa egiteko irizpideak

25. Zehatutako enpresa bakoitzaren jokabidea baloratzeari dagokionez, komeni da hainbat faktore osagarri kontuan hartzea, zehapenak enpresak arau-haustean izan duen partaidetza erreala isla dezan.

1. **Arau-haustearen iraupena** (64.1.d. art.). Enpresa bakoitzak dagokion jardueran izan duen partaidetzaren iraupena baloratzen da.

2. **Arau-haustek eragindako merkatuaren dimentsioa** (64.1.a. art.). Enpresa arau-hausteeke EMNBren errekerimenduari jarraikiz aurkeztutako arau-haustek eragindako merkatuaren negozio-bolumenen (EMNB) datuetatik abiatuta kalkulatu da enpresa bakoitzak arau-haustea egin den bitartean eragindako merkatuaren guztirako negozio-bolumenean izan duen partaidetza-kuota. Erakunde bakoitzari ezarritako zehapen-tasa handitu egiten da bere partaidetza-kuotaren arabera, betiere nabarmena bada.

3. **Arau-haustearen irismena** (64.1.c. art.)

4. Erantzulea den enpresa bakoitzaren kasuan, zer-nolako **gertakari astungarri edo aringarriak** dauden (64.1.g. art.). Hala dagokionean, LDLren 64.2 eta 64.3.artikuluetan jasotako gertakari astungarri edo aringarriak aplikatuko dira.

26. Aipatu bezala, **jokabidearen iraupena** ez da bera enpresa guztien kasuan (64.1.d. art.). Hala, partaidetza-aldia 27 urtekoa da AIZPURUA eta GARAYAR enpresen kasuan, 26 urtekoa AUIF eta PESA enpresetan, 25 urtekoa ARTEONDO enpresaren kasuan; 21 urtekoa URPA enpresaren kasuan; 18 urtekoa UNITRAVEL enpresaren kasuan eta 12 urtekoa GUREBUS enpresaren kasuan.

27. Arau-haustek **eragindako merkatuaren dimentsio** errealari dagokionez (64.1.a. art.), jarraian datorren taulak jasotzen du erakunde arau-hausteeke eragindako merkatuan izandako negozio-bolumena (EMNB), zehazki, erabilera bereziko garraio erregularraren eta eskatu ahalako garraioaren merkatuan, beren arau-hausteen iraupenaren arabera. Datu horiek era arrazoizkoan kalkulatu dira espedientean



jasotako informazioa oinarritzat hartuta. Aipatzeko modukoa da informazio hori enpresek eman dutela, LEA/AVCK hala eskatuta. Halaber, taulan **enpresa bakoitzaren partaidetza-kuota** ere jasotzen da (64.1.b. art.).

Kartela osatzen duten eta LEA/AVCren ebazpen bidez zehatutako 17 enpresen EMNBa 104,04 milioi eurokoa da. Jarraian datorren taulan adierazten da ebazpen osagarri honetan jasotako 9 enpresen EMNBa enpresa bakoitzaren zehapenaren iraunaldian zehar, baita horietako bakoitzak jokabidean izan duen partaidetza-kuota ere.

ENPRESA	JOKABIDEAK ERAGINDAKO MERKATUKO NEGOZIO-BOLUMENA (€)	JOKABIDEAN IZANDAKO PARTAIDETZA-KUOTA (%)
AUTOCARES AIZPURUA SL	16.821.279 €	% 16,17
ARTEONDO AUTOBUSAK SL	3.595.327 €	% 3,46
AUTOBUSES URBANOS IRUN FUENTERRABIA SL	3.171.878 €	% 3,05
AUTOBUSES GARAYAR SA	399.502 €	% 0,38
GURE BUS SAL	1.272.305 €	% 1,22
TRANSPORTES PESA SA	2.315.000 €	% 2,23
UNITRAVEL SL	8.095.516 €	% 7,78
AUTOCARES URPA SL	2.982.266 €	% 2,87

28. Arau-haustearen irismena enpresek operatzen duten merkatuen eta prezioak finkatzeko eta merkatuak banatzeko akordioak hartu ziren AVITRANSen bileretan izan zuten partaidetza-mailaren araberkoa da (64.1.c, art.).

- **AIZPURUA**k erabilera bereziko garraio erregularreko merkatuetan operatu du, eskola-garraio publikoaren, lizitazio publikoen eta kolektibo pribatuen modalitateetan, baita eskatu ahalako garraioaren merkatuan ere. Haren partaidetza bereziki garrantzitsua izan da lizitazio publikoetan; izan ere, modalitate horri dagokio enpresaren negozio-bolumenaren % 80. Hori ikusita, kontseilu honek kontsideratu du lehiari kalte handiagoa egiten diola.

AIZPURUA, LEKen ebazpenaren 92. artikuluan egiaztatu den bezala, Gipuzkoako Foru Aldundiaren udaleku-programako adjudikazioduna izan zen 2000-2016 aldiaren, baita Euskadiko Orkestraren garraioarena ere, zehazki, 2004-2016 aldiaren, eta eskola-garraio publikoko zerbitzu batzuk ere eman zituen.

AIZPURUA AVITRANSen tarifak finkatzeko 62 bileretara joan da guztira, baita merkatuaren banaketa jorratu zen 37 bileretara eta eskola-garraio publikoari buruzko 23 bileretara ere.

- **ARTEONDO**k erabilera bereziko garraio erregularreko merkatuetan operatu du, eskola-garraio publiko nahiz kolektibo pribatuen modalitateetan, baita eskatu ahalako garraioan ere.

ARTEONDO AVITRANSen tarifak finkatzeko 25 bileretara joan da guztira, baita merkatuaren banaketa jorratu zen 19 bileretara eta eskola-garraio publikoari buruzko 15 bileretara ere.



- **AUIF**ek erabilera bereziko garraio erregularreko merkatuetan operatu du, eskola-garraio publiko nahiz kolektibo pribatuen modalitateetan, baita eskatu ahalako garraioan ere.

AUIF AVITRANSen tarifak finkatzeko 23 bileretara joan da guztira, baita merkatuaren banaketa jorratu zen 17 bileretara eta eskola-garraio publikoari buruzko 12 bileretara ere.

- **GARAYAR**ek erabilera bereziko garraio erregularreko merkatuan operatu du, eskola-garraio publikoko modalitatean.

GARAYAR AVITRANSen tarifak finkatzeko 55 bileretara joan da guztira, baita merkatuaren banaketa jorratu zen 34 bileretara eta eskola-garraio publikoari buruzko 19 bileretara ere. EAEJANen 49/2019 Epaiak berretsi duen bezalaxe, LEA/AVCK bere ebazpenean egiaztatu zuen GARAYAREk 27 urteko aldi horretako bileretan parte hartzeaz gain, «zuzendaritza-lanak egin edo protagonismo berezia» izan zuela.

- **GUREBUS**ek erabilera bereziko garraio erregularreko merkatuetan operatu du, kolektibo pribatuen modalitatean, baita eskatu ahalako garraioan ere.

GUREBUS AVITRANSen tarifak finkatzeko 17 bileretara joan da guztira, baita merkatuaren banaketa jorratu zen 4 bileretara ere.

- **PESA**k erabilera bereziko garraio erregularreko merkatuan operatu du, kolektibo pribatuen modalitatean.

PESA AVITRANSen tarifak finkatzeko 11 bileretara joan da guztira, baita merkatuaren banaketa jorratu zen 2 bileretara ere. EAEJANen 64/2019 Epaiak berretsi duen bezalaxe, LEA/AVCK bere ebazpenean egiaztatu zuen PESAk 25 urteko aldi horretako bileretan parte hartzeaz gain, «zuzendaritza-lanak egin edo protagonismo berezia» izan zuela.

-**UNITRAVEL**ek erabilera bereziko garraio erregularreko merkatuetan operatu du, eskola-garraio publiko nahiz kolektibo pribatuen modalitateetan, baita eskatu ahalako garraioan ere.

UNITRAVEL AVITRANSen tarifak finkatzeko 20 bileretara joan da guztira, baita merkatuaren banaketa jorratu zen 16 bileretara eta eskola-garraio publikoari buruzko 11 bileretara ere.

- **URPA**k erabilera bereziko garraio erregularreko merkatuetan operatu du, eskola-garraio publiko nahiz kolektibo pribatuen modalitateetan, baita eskatu ahalako garraioan ere.

URPA AVITRANSen tarifak finkatzeko 31 bileretara joan da guztira, baita merkatuaren banaketa jorratu zen 22 bileretara eta eskola-garraio publikoari buruzko 14 bileretara ere.



29. Azkenik, jarraian datozen **gertakari aringarriak** (64.1. art.) hartu dira aintzat zehapen-tasa graduatzeko.

- ARTEONDO: ez zuen egin elkarteak ULACIA enpresaren kontra proposatutako boikota.

- UNITRAVEL: ez zuen egin elkarteak ULACIA enpresaren kontra proposatutako boikota. Gainera, AVITRANS elkarteak (elkarte horretan erabakiak gauzatzen zituztela egiaztatu da) baja eman zuen LEA/AVCren zehapen-espeditante bat zegoela jakin aurretik eta enpresak aplikatutako prezioak AVITRANSen adostutakoak baino baxuagoak zirela justifikatzen duten fakturak aurkeztu ditu. Horrek guztiak hartutako akordioaren eraginaren murriztapen egiaztatua dakar berekin.

- URPA: AVITRANS elkarteak (elkarte horretan erabakiak gauzatzen zituztela egiaztatu da) baja eman zuen LEAn zehapen-espeditante bat zegoela jakin aurretik.

30. Jarraian datorren taulan ikus daiteke erakunde arau-hausle bakoitzari aplikatzea bidezkoa den **banakako zehapen-tasa** (2016ko negozio-bolumenaren gainean), jokabidearen larritasuna eta gertakariak aintzat hartuta, izandako partaidetzaren arabera eta aurreko puntuan aipatutako aringarriak kontuan hartuz:

ENPRESA	BANAKAKO ZEHAPEN-TASA
AUTOCARES AIZPURUA SL	1,25
ARTEONDO AUTOBUSAK SL	-0,30
AUTOBUSES URBANOS IRUN FUENTERRABIA SL	0,45
AUTOBUSES GARAYAR SA	0,25
GURE BUS SAL	0,25
TRANSPORTES PESA SA	0,25
UNITRAVEL SL	-2,25
AUTOCARES URPA SL	-1,25

31. Horrenbestez, erakunde arau-hausle bakoitzari (2016ko negozio-bolumenaren gainean) aplikatu beharreko **guztirako zehapen-tasa** (zehapen-tasa orokorra + banakako zehapen-tasa) honakoa da:



ENPRESA	ZEHAPEN-TASA OROKORRA	BANAKAKO ZEHAPEN-TASA	ZEHAPEN-TASA (GUZTIRAKO NEGOZIO-BOLUMENAREN %)
AUTOCARES AIZPURUA SL	2,75	1,25	4,00
ARTEONDO AUTOBUSAK SL	2,75	-0,30	2,45
AUTOBUSES URBANOS IRUN FUENTERRABIA SL	2,75	0,45	3,20
AUTOBUSES GARAYAR SA	2,75	0,25	3,00
GURE BUS SAL	2,75	0,25	3,00
TRANSPORTES PESA SA	2,75	0,25	3,00
UNITRAVEL SL	2,75	-2,25	0,50
AUTOCARES URPA SL	2,75	-1,25	1,50

D. Proporzionaltasunaren azken egiaztapena

32. B eta C ataletan aplikatutako metodoak bermatu egiten du erakunde arau-hausle bakoitzari ezarritako guztirako zehapen-tasa bat datorrela arau-haustearren larritasunarekin eta gainerako inguruabarrekin, baita enpresak arau-haustean izan duen partaidetzarekin ere. Hori guztia gorabehera, eurotan ordaindu beharreko zehapena desproporzionatua izan daiteke erakunde arau-hauslearen jokabide errealekin alderatuta, baldin eta arau-hausleak eragindako merkatuan duen jarduera erlatiboki txikia bada guztirako negozio-bolumenarekiko.

Aurreko atalean lortutako zehapen-tasatik eratorritako isuna arau-haustearren dimentsio errealekiko proporzionala dela egiaztatzen aldera, disuasio-isun proporzional kontsideratzen den isunaren balioa kalkulatu da enpresa bakoitzarentzat. **Proporzionaltasun-muga** deritzo zenbateko horri. Zehapen-tasatik eratorritako eurotan ordaindu beharreko isunak proporzionaltasun-muga hori gainditzen badu, litekeena da isun hori desproporzionatua izatea. Kasu horretan, muga horretara arte murrizten da isuna.

33. Proporzionaltasun-muga hori ezartzeko, enpresa arau-hausleak arau-haustea iraun zuen bitartean eskuratu ahal izan duen legez kontrako mozkinak kalkulatu behar da lehenik. Ehuneko hori enpresak arau-haustea iraun zuen bitartean jardun zuen sektoreko esplotazio-marjina gordina aintzat hartuz kalkulatu da³.

Bigarrenik, ezarritako zehapenak disuasio-efektua izan dezan, erakunde arau-hausleak arau-haustearrekin irabaztea espero zuen mozkinaren parekoa edo handiagoa izan behar da zehapena (LDLren 63. art. ezarritako mugei kalterik egin

³ Alderdi horiek hainbat parametro ekonomikori egiten diete erreferentzia, hala nola enpresek lehiaren baldintzetan duten mozkin-tarteari, arau-haustearren ondoriozko prezioen igoerari eta dagokion merkatuko eskariaren prezio-elastikotasunari. Ahal izan denean, kontuan hartutako alderdi horiek enpresa arau-hausleek beraiek emandako datuetan oinarritzen dira, edota dagokion merkatuari buruzko datu-base publikoetan. Parametro horien gaineko kasuak oso zuhurrak dira, ikuspegi ekonomikotik arrazoizkoak izan behar baitira beti ezinbestean, eta zalantza izanez gero, enpresentzako balio onuragarrienak hartzen dira beti.



gabe). Horregatik, faktore inkrementala aplikatu zaio aurretiaz kalkulaturako legez kontrako mozkinari.

- 34.** GARAYAR eta PESA enpresen kasuetan, fakturazioaren gehiengoa erabilera orokorreko hiriarteko garraio erregularrean egin da, eta hori ez dago eragindako merkatuan jasota; hau da, enpresa horien negozio-bolumenaren zati erlatiboki txiki bat bakarrik dator bat jokabideak eragindako merkatuekin. Enpresa horien kasuan, isunak proportzionaltasun-muga gainditzen du, eta, beraz, bidezkoa da isuna muga horretara arte murriztea.

Horregatik guztiagatik eta egindako zenbatespenekin bat eginez, PESARI ez zaio aplikatu jokabidearen larritasunagatik eta arau-haustean izan duen partaidetzagatik (% 3,0) aplikatu beharko litzaiokeen zehapen-tasa. Horren ordez, proportzionala izango den eta behar besteko disuasio-efektua izango duen zehapen bat ezartzea erabaki da, zehazki, 277.800 eurokoa.

Halaber, GARAYARI ez zaio aplikatu jokabidearen larritasunagatik eta arau-haustean izan duen partaidetzagatik (% 3,0) aplikatu beharko litzaiokeen zehapen-tasa. Horren ordez, proportzionala den eta behar besteko disuasio-efektua izango duen zehapen bat ezartzea erabaki da, zehazki, 47.940,27 eurokoa.

- 35.** Gainontzeko enpresei ezarritako zehapenek ez dute proportzionaltasun-muga gainditu, eta, beraz, oso-osorik aplikatu zaie enpresa horiei guztiei dagokien zehapen-tasa.

- 36.** Gauzak horrela, honako hauek dira enpresa arau-hausleei aplikatzea bidezkoak diren zehapenak:

ENPRESA	ZEHAPENA (€)
AUTOCARES AIZPURUA SL	127.332,55
ARTEONDO AUTOBUSAK SL	20.062,80
AUTOBUSES URBANOS IRUN FUENTERRABIA SL	75.846,37
AUTOBUSES GARAYAR SA	47.940,27
GURE BUS SAL	20.472,54
TRANSPORTES PESA SA	277.800,00
UNITRAVEL SL	3.125,79
AUTOCARES URPA SL	9.572,99

2. AVITRANSen zehapena ezartzeko irizpideak

- 37.** Espedientean egiaztatu da, eta hala berretsi du EAEJANen epaiak, AVITRANS dela LDLren 1. artikulua hausteko baliatutako akordioen zentroa eta mekanismoa. Hala, Gipuzkoako bidaiarien autobus bidezko garraioaren sektoreko lehia murriztu du, merkatuan elkartutako enpresen jokabidea harmonizatzerako bideratutako akordioak hartuz. Hala adierazi du EAEJANEK behin eta berriz aipatutako epaian:



Auzi-jartzaileak hartutako edo antolatutako lehiaren aurkako akordioak egotea nahikoa da alderdi auzi-jartzailea zehatutako jokabidearen arduradun kontsideratzeko (...).

38. Ezarri behar zaion zehapenari dagokionez, LEKen ustez elkarte profesionala izateak espedientea hasi zaien gainerakoekiko tratamendu bereizia ematea justifikatzen du, AVITRANSi Lehiaren Defentsarako uztailaren 17ko 16/1989 Legea (gaur egun indarrean dagoen LDLk indargabetutakoa) aplikatu behar zaio eta. Arau hori onuragarriagoa zaio, 10. artikuluan ezartzen du, izan ere, debekatutako jokabide bat egiteagatiko isuna ez dela 901.518,16 euro baino handiagoa izango. Oraingo LDLk adierazten du, ordea, elkarteen negozio-zifra elkarteko kide guztien fakturazioa batuta kalkulatu dela, eta horrek zehapen handiagoa ekarriko luke. Zehazki, AVITRANSen kasuan, 72 milioi euroko fakturazioa izan zen 2016an, eta beraz, jarri beharko litzaiokeen isuna askoz ere handiagoa litzateke.

Gainera, 16/1989 Legea aplikatzeak elkartekideen fakturazio-bolumena birritan zenbatzea eta enpresak birritan zehatzea saihesten du, hein batean gutxienez; izan ere, AVITRANSekin batera inputatutako enpresei bakoitzaren negozio-bolumenaren arabera zehapena ezartzen zaie.

39. Hala berretsi du EAEJANen otsailaren 28ko 58/2019 Epaiak. Bertan adierazten da AVITRANSi espediente honen barruan aplikatu beharreko zehapena 16/1989 Legearen 10.2. artikuluan jasotako graduazio-irizpideak aplikatzearen arabera izan behar dela:

- a) Lehiaren mugatzearen modalitatea eta irismena.
- b) Eragindako merkatuaren tamaina.
- c) Dagokion enpresaren merkatu-kuota.
- d) Lehia mugatzeak lehiakide erreal edo potentzialetan, prozesu ekonomikoan parte hartzen duten bestelako alderdietan eta kontsumitzaile eta erabiltzaileetan eragindako ondorioak.
- e) Lehiaren mugatzearen iraupena.
- f) Debekatutako jokabideak behin eta berriz egitea

40. AVITRANS LDLren 1. artikulua arau-hauste oso astunaren erantzulea da, elkarte horren barruan hartu direlako tarifak finkatzeko eta merkatuak banatzeko lehiaren aurkako erabakiak garraio erregular berezian (modalitate guztietan: lizitazio publikoak eta pribatua) eta eskatu ahalako garraioan, eta horrez gain, aipatutako erabakiak gauzatzen saiatu direlako men egiten ez zieten enpresa jakin batzuen aurkako boikot-neurriak ezarriz eraginkortasunez betetzeko sistema baten bitartez (10.2.a.art.).

AVITRANSen jokabide horien iraupena 1988tik 2015era bitartekoa izan da. (art.10.2.e)



Eragindako merkatuaren tamainari eta arau-haustearen irismenari eta merkatuan izan dituen ondorioei dagokienez, aintzat hartu dugu II. B atalean enpresei ezarri beharreko zehapenak erabakitzeko irizpideei buruz esandakoa; izan ere, guztiz logikoa da, AVITRANek eta inputatuko garraio-enpresek era koordinatuan jardun dutelako merkatu horretako jokabideetan. (10.2.b eta d art.)

AVITRANek ez du jarduera zuzenik eragindako merkatuan, baina merkatu horretan duen fakturazio-gabezia guztiz koherentea da bere enpresa-elkarte izaerarekin. (10.2.c art.)

- 41.** Horregatik guztiagatik, LEA/AVCren eta Merkatuen eta Lehiaren Batzorde Nazionalaren (MLBN) aurrekariei jarraikiz,⁴ AVITRANek ezarri beharreko zehapena, aintzat hartuta lehiaren arloko zehapenak duten disuasio-izaera eta profesionaltasun-printzipioa, 20.000 eurokoa da.

III. EBAZTEN DU

- 42.** Aurreko atalean aipatutako arau-haustean enpresa bakoitzak duen erantzukizunari jarraikiz, LEA/AVC Lehiaren Euskal Kontseiluak honakoa ebazten du:

- 43.** Jarraian datozen zehapenak ezartzea, 2017ko abenduaren 27ko Ebazpenean onartutako zenbatekoak berretsiz, aurreko ataletan azaldutako justifikazioaren arabera:

- ARTEONDO AUTOBUSAK SLri (IFK B20548079): 20.062,80 euroko zehapena.
- GIPUZKOAKO BIDAIARIEN HIRIARTEKO GARRAIOKO ENPRESA-ELKARTEAri (AVITRAN) (IFK G20058541): 20.000 euroko zehapena.
- AUTOBUSES GARAYAR SAri (IFK A20062345): 47.940,27 euroko zehapena.
- AUTOBUSES URBANOS IRUN FUENTERRABIA SLri (IFK B20038949): 75.846,37 euroko zehapena.
- AUTOCARES AIZPURUA SLri (IFK B20044442): 127.332,55 euroko zehapena.
- AUTOCARES URPA SLri (IFK B20380127): 9.572,99 euroko zehapena.
- GURE BUS SALri (IFK A20402681): 20.472,54 euroko zehapena.
- TRANSPORTES PESA SAri (IFK A20026084): 277.800 euroko zehapena.

⁴ 2014ko apirilaren 7ko LEA/AVCren ebazpenak (1/2012 espedientea EIZIE – Itzulpen-tarifak) MLBNren ebazpenak: 2014ko irailaren 22koa (S/0428/12 Paleak); 2014ko azaroaren 6koa (S/0430/12 Paper-bilketa); 2015eko urtarrilaren 8koa (S/0429/12 Hondakinak); 2015eko otsailaren 26koa (S/0425/12 Esneki-industriak 2); 2015eko martxoaren 5koa (S/0489/13 Opel kontzesionarioak) eta 2018ko uztailaren 26koa (S/DC/0596/16 Vigoko estibatzaileak)



- UNITRAVEL AUTOCARES SLri (IFK B20388997): 3.125,79 euroko zehapena.

- 44.** Agintzea zehapena jaso duten enpresei LEAko Ikerketa Zuzendaritza honetan justifika dezatela ezarritako isuna gauzatu dela.
- 45.** Lehiaren Euskal Agintaritzako Ikerketa Zuzendaritzari eskatzea ebazpen hau osorik betetzen dela zaindu dezala.
- 46.** Jakinaraz bekio ebazpen hau Lehiaren Euskal Agintaritzako Ikerketa Zuzendaritzari, eta jakinaraz bekie EAEJANi 2017ko abenduaren 27ko 130-ZEH-2016 espedientearen ebazpenaren kontra jarritako demandaren onespén partziala jaso zuten enpresei –GIPUZKOAKO BIDAIARIEN GARRAIOA (AIZPURUA, ARTEONDO, AUIF, AVITRANS, GARAYAR, GUREBUS, PESA, UNITRAVEL eta URPA– eta MLBNri, eta adierazi behar zaie ebazpen honek administrazio-bidea amaitzen duela, eta administrazioarekiko auzi-errekurtsoa ipin dezaketela EAEko Justizia Auzitegi Nagusiko Administrazioarekiko Auzien Salan, jakinarazpena egiten den egunetik hasi eta bi hilabeteko epean.